


# Denbora

## 2 Sarraileak


Tomaxek giltza mordo bat ibiltzen du poltsikoan. Giltza horietatik bi etxeko atarikoak dira. Asmatuko duzu zein diren?



## 3 Margotu eta asmatu


Hartu koloreetako arkatzak, eta hasi margotzen. Zenbaki bakoitzari kolore bat dagokio. Amaitzean, ezkutuko irudia ikusi ahal izango duzu. Zer dago?

1-horia, 2-laranja, 3-marroia, 4-urdina



## Autoa


Autoekin jolastea atsegin al duzu? Eta zuk egindako autoarekin jolastea? Argibide hauei jarraituz gero, auto dotore bat eraiki ahal izango duzu.



### Beharrezko materiala

- Komuneko paperak dakartzan kartoi horietako bost.
- Egunkari papera.
- Kola.
- Mastika.
- Pintura berdea, beltza, zuria eta horia.
- Pintzelak.
- Arropa zabaltzeko pintzak.

**1** Komuneko paperaren hiru kartoi jarri bata bestearen jarraian. Haien gainean, beste bi ipini. Guztiak kolarekin itsatsi. Kola lehortzen den bitartean, kartoiak ongi itsasteko, arropa zabaltzeko pintzak erabiliko ditugu.



**2** Autoaren oinarria egina dugu dagoeneko. Egunkari papera hartu, eta paper zati luzexkak moztu. Paper zatiak kolan sartu, eta estali autoaren oinarria paper zatiekin.

**3** Guztiak ongi lehortutakoan, autoa mastikarekin estali. Lehortzean, pintura berdearekin margotu.




**Egiteko modua**

# -pasa


## 4 Buruari eragin

Zer moduz moldatzen zara kalkuluak ateratzen? Ea zortzi eragiketa hauetatik gutxienez lau asmatzen dituzun. **Animo!!**

- (a)  $[(2+6-3) \times 7] + 8 =$
- (b)  $[(4+9-2+4) : 3] + 1 =$
- (c)  $6+2+7+(4 \times 2) =$
- (d)  $(3+5+2-1+9) \times (2-1) =$
- (e)  $[(10-3+7) : 7] \times (13-2+4) =$
- (f)  $(5+13)-(2 \times 8)+6+3-4 =$
- (g)  $[(11+2-8-1) \times 3] + 4-9-2 =$
- (h)  $[10+(4:2)-2 \times 3] : (5+3-2) =$



4 Autoaren leihoak eta matrikula margotzeko, berriz, pintura zuria erabiliko dugu. Matrikula kotxearen aurreko aldean eta atzeko aldean margotu behar dugu; leihoak, berriz, lau aldeetan.




5 Amaitzeko, kotxearen azken xehetasunak margotu behar ditugu: gurpilak, argiak, haizetakoak...

Hau adibide bat baino ez da, kotxeaz gain, beste edozein ibilgailu egin balitezakezu kartoizko hodiak erabilita: kamioia, traktorea, karabana...

## 5 Bikiak


Eskolan egurrezko itsasontziak egiten aritu dira aste honetan. Bakoitzak berea egin du.

Amaitzean, bi itsasontzi berdin egin dituztela ohartu dira. **Zein dira bikiak?**



## 6 Itzalak

Eguzkiak ederki berotzen du Sararen balkoian. Loreak eguzki galdatan ditu. Itzalei begiratuta, **asmatuko al zenuke zein den Sararen lorontziarena?**



Erantzunak: 1.-1-H, 2-B, 3-E, 4-F, 5-G, 6-A, 7-D, 8-I, 9-C. 2.-3 eta 5. 3.-Piramidea. 4.-a) 43, b) 6, c) 23, d) 18, e) 30, f) 7, g) 5, h) 5. 5.-8 eta 1. 6.-B.